

BASABURUA IMOTZ UDAL ELKARTZEA
P7102296F
31866 Basaburua

2024ko Martxoaren 1ean Basaburua-Imotz udal elkartzeko lehendakariak, jarraian zehazten den erabakia hartu zuen:

3-2024 EBAZPENA

2022ko abenduaren 22ko 247. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion Basaburua-Imotz udal elkartzeko administrari laguntzailearen lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedatutakoaren arabera.

2023ko abenduaren 15ean egindako bilkuran behin betiko zerrenda onartu zen Basaburua eta Imozko udaletako web orrietan argitaratu zelarik.

Merezimendu-lehiaketa amaituta, Basaburua eta Imozko udaletako web orrietan argitaratu zen puntuazioarik handiena lortu zuen izangaia izendatzeko proposamena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituena eta deitutako plaza-kopuruan sartzen zena.

Deialdian eskatutako agiriak aurkeztu ondoren eta bertan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, bidezkoa da bera izendatzea eta plaza esleitzea.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau,

EBAZTEN DUT

1.- Nerea Ripa Alberdi Basaburua-Imotz udal elkartzeko lan-kontratuko langile finko izendatzea, administrari laguntzaile lanpostua betetzeko (plantilla organikoko 2. lanpostua)

2.- Administari laguntzailearen lanpostu hutsa esleitzea (plantilla organikoaren 2. zenbakia)

- Izen-abizenak: Nerea Ripa Alberdi
- Plaza: administrari laguntzailea
- Maila: D
- Araubide Juridikoa: lan-erregimenean kontratatua
- Hizkuntzak: euskara C1/EGA nahitaezkoa

- Lanaldia: %100

3.- Izendatutako izangaia ebazpenaren egunetik hilabeteko epean hartu beharko du lanpostua, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 foru legearen 6.4 artikulua araber.

Egun horretan, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostua hartzen ez badu toki-erakunde deitzaileko lan-kontratuko langile finko izateko eskubide guztiak galduko ditu.

4.-Ebazpen hau, dagozkion ondorioak izan ditzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratzea baita Basaburua eta Imozko udaletako web orrietan. Ebazpen honen aurka nahi izanez gero, honako errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertze helegitea erabakia hartu duen organoaren aurrean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik hilabete bateko epean*
- b) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.*
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*

Jauntsaratsen, 2024ko Martxoaren 1ean

LEHENDAKARIA

Izp: Santos Etxegia Oronoz